## ETAPA 11.

# ISPASTER - LAIDA 21 KM

**Desnibela-desnivel** + 772m / - 878m



GR 123®

# BIZKAIKO BIRA

OINEZ
SENDERISMO
HIKING

LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA



## **Topogida** - Topoguía

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

GR 123
# BIZKAIKO BIRA
OINEZ SENDERISMO HIKING

LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA



## 11. ETAPA Ispaster-Laida | 21 Km / 6 h 30' h

**Desnibela-desnivel** + 772m / - 878m







### MIDE datuak / datos MIDE

| | Ingurunea *Medio* | Ibilbidea *Itinerario* | Desplazamendua *Desplazamiento* | Ahalegina *Esfuerzo* | MIDE ordutegia *Horario MIDE* |
|---|---|---|---|---|---|
| 11. ETAPA | 1 | 2 | 2 | 4 | 6h 30' |
| | Arrisku faktore bat baino gehiago daude | Bidexkak edo jarraibidea adierazten duten seinaleak | Zaldibideko ibilaldia | 3 eta 6 ordu arteko ibilaldia gelditu gabe | 112 SOS DEIAK |
| | Hay mas de un factor de riesgo | Sendas o señalización que indica la continuidad | Marcha por caminos de herradura | De 3 a 6 horas de marcha efectiva | |

### Ikurrak - Iconos - Icons

- Zu hemen zaude / Ud, está aquí / You are here
- Autoz iristeko puntua / Acceso con vehículo / Vehicle access
- Baseliza / Ermita / Hermitage
- Aterpea / Refugio / Refuge
- Ondare arkeologikoa / Patrimonio arqueológico / Archeology Heritage
- Atsedenlekua / Área recreativa / Recreational área
- Ikuspegi panoramikoa / Vista panorámica / Panoramic view
- Iturria / Fuente / Source
- Hondartza / Playa / Beach
- Koba / Cueva / Cave
- Ondare monumentala / Patrimonio monumental / Monumental Heritage
- Megalitoa / Megalito / Megalith

Web Euskera

Web Castellano

Track

11. Etapa ISPASTER–LAIDA

EU

# Hasiera

Kostaldeko etapa hau baserri-munduaren kutsua ondo gorde duten bi herriren artean hasiko dugu: Ispaster eta Ea. Turismorako oso erakargarriak dira, ederki egokitu dutelako landa-izaera paisaiaren xarmarekin. Herri hauek esentzia osoan ezagutzeko modu paregabea da euren oinezko ibilaldietan murgiltzea.

ES

# Inicio

Comenzamos esta etapa puramente costera entre dos localidades que han mantenido con acierto su vocación rural: Ispaster y Ea. Su indudable encanto natural y paisajístico les ha dotado de un tremendo potencial turístico. El senderismo puede ofrecer una buena manera de conocerlos en toda su esencia.






GR 123®
BIZKAIKO BIRA
OINEZ
SENDERISMO
HIKING
LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA

I


S
P
A
S

EU

**KM - 0**

# Ispasterreko landa arkitektura



Ispastertik, zalantzarik gabe, bere aberastasun arkitektonikoa azpimarratuko genuke: tradizionala, monumentala baino gehiago. Euskal Herri Atlantikoaren landa-herri baten eredua dugu, baina ia beste guztiengandik bereizten duen gabezia batekin: ez du ibairik.

Hala ere, Ispasterren baserri-arkitekturaren sekuentzia osoa topa daiteke: harrizko eraikin gotikoetatik hasita, harlanduzko arkuak edota egurrezko egiturak dituzten XVIII. mendeko baserri ederretaraino; opari bikaina arkitektura eta etnografia maite dutenentzat.

Herriko plazatik Santiago ermitara hurreratuko gara; bere arkitektura eta kokapen naturalari begirada labur bat bota ondoren, ezkerretara utziko dugu, gozatu ondoren. Basoko ustiategi batetik bidea egiten dugu ermita, Zarando auzoraino iritsi arte. Etxe-multzo honetan lauzpabost baserri daude, gune txiki bat osatuz.

ES

**KM - 0**

# La arquitectura rural de Ispaster

De Ispaster destacaríamos, sin duda, su riqueza arquitectónica: no tanto la monumental, sino la tradicional; es un pueblo rural característico de la Euskal Herria Atlántica, con una particularidad que lo diferencia de casi todos los demás: no tiene río

Sin embargo, muestra la secuencia completa de la arquitectura del caserío: desde sus orígenes con paredes de piedra en toda su construcción gótica, hasta los preciosos caseríos del XVIII con arcos de piedra o entramados de madera; un auténtico regalo para los amantes de la arquitectura en general y de la etnografía.

Desde la plaza del pueblo nos acercaremos a la ermita de Santiago; la dejamos a nuestra izquierda, después de disfrutar de su arquitectura y emplazamiento natural. Serpentea el camino por una explotación forestal durante algunos kilómetros hasta llegar al barrio de Zarando, característico conjunto de cuatro o cinco caseríos, formando un pequeño núcleo.



KM - 6

EU

# Urtubiagako burdinola

Eako hirigunera heldu baino lehenago, aspaldiko burdinoletako bat bisitatzeko aukera ederra dugu: eskualde horretako ibaiak aprobetxatuz, gaur egunera arte iritsi zaigun jarduera ekonomiko garrantzitsu baten hazia izan zena: metalaren industriarena, alegia. Bere aztarna adierazgarrietan, lehen mailako ingeniaritza zibileko obra bat sumatuko duzue. Herri hauetara eta inguruko hiribilduetara aberastasuna ekarri zuen Europa mailako obra aitzindaria.

ES

# Ferrería de Urtubiaga

Antes de alcanzar el núcleo urbano de Ea, tenemos el lujo de visitar una de las antiguas ferrerías, que jalonaron los ríos de esta comarca. Supusieron el embrión de una importante actividad económica, que llegaría hasta nuestros días: la de la industria del metal. Podréis adivinar en sus ruinas una obra de ingeniería civil de primer orden, que aportó riqueza a estos pueblos y a las villas cercanas, de donde procedían la mayoría de las veces sus propietarios.



E





EU

KM - 6,5

# Ea itsas herri txikia"

Ibaiaren ertzetik, burdinola, ubidea eta aldaparoa ezagutzeko prestatu den oinezkoentzako ibilbideari jarraituko diogu. Ehunka metro batzuetara, Ikertako errota gainaldetik igarota, Eako udaletxeko plazan gara, itsasoratu aurretik ibaiak azpitik pasatzen duen zubiaren parean.

Mendebalderantz irtengo gara errepide-zati labur batetik eta, laster, Natxituara arte eramango gaituen "Errege Bidearekin" bat egingo dugu. Bide eder honen erdian dagoen Aingelutxu auzunea ezkerretara utzi eta Longa baserriaren ondoko errepidea arretaz gurutzatuko dugu.

a

ES

KM - 6,5

# El pequeño pueblo costero de Ea”

Continuamos por el recorrido peatonal habilitado junto al cauce del río, a fin de conocer la ferrería, el canal, la “antepara” del salto ferrón y el desagüe. En unos cientos de metros pasamos por la parte superior el molino de Ikerta y nos topamos enseguida con la placita del ayuntamiento y el puente que siluetea el río antes de su desembocadura.

Salimos hacia el oeste por un pequeño tramo de carretera. Tomaremos pronto un desvío, que entronca con el “Camino Real” que nos llevará hasta Natxitua. En medio de este precioso camino está la barriada de Aingelutxu; la dejamos a la izquierda y cruzamos la carretera con precaución junto al caserío Longa.







KM - 11 EU

# Ibarrangeluko San Andres

Arbolizen, ezkerrerantz egin, hilerriaren ondotik pasatzen den bidetik jaitsi eta Ibarrangeluko erdigunera iritsiko gara. Han, San Andres eliza nabarmentzen da: “euskal kapera sixtinoa” deitzen zaio, sabaian dituen egur polikromatuetan moldatutako ganga ikusgarriengatik. Euskal Herrian parerik ez duen artelan bikaina da.



KM - 11 ES

# San Andrés de Ibarrangelu

En Arboliz nos desviamos hacia la izquierda descendiendo por un camino que pasa junto al cementerio y llega pronto al núcleo de Ibarrangelu. Destaca allí , la iglesia de San Andrés, bautizada como “la capilla sixtina vasca” por sus bóvedas construídas en maderas policromadas. Una auténtica obra de arte sin igual en la geografía vasca.



EU

**KM - 12,5**

# Elantxobe

Iparralderantz jarraituko dugu, Elantxoberako norabidean; laster, Zobeika baserriaren alboan, ezkerrera egingo dugu, baserri txikiz jositako landa-bide batetik, Elantxobeko hilerrira heldu arte; puntu horretan, Lastarri auzorantz jaisten hasiko gara. Hortik, errepidearen ondoan prestatutako oinezko bide batetik, Urdaibai arroko hondartzarik erabilienetako batera iritsiko gara: Lagara.

ES

Continuamos  hacia el norte, rumbo a Elantxobe; pronto giramos a la izquierda, dirección oeste, cerca del caserío Zobeika, por un camino rural jalonado de pequeños caseríos, hasta llegar al cementerio de Elantxobe; en este punto comenzamos a descender hacia el barrio de Lastarri. Desde aquí por un camino peatonal habilitado junto a la carretera por su arcén, accederemos a uno de los arenales más concurridos de la cuenca de Urdaibai: Laga.

EU

**KM – 14,5**

# Lagako hondartza

Ezinbestekoa da Ogoñoko haitz labarraren paisaia harrigarria arretaz begiratzea, itsasoaren gainean altxatzen den horma bertikal ederra. Surflariek, bertakoek eta turista batzuek gozatzen dute hondartza honetan hiri-elementurik gabeko naturaltasuna.

ES

# La playa de Laga

Imprescindible disfrutar de su paisaje con la peña acantilado de Ogoño, una pared vertical que se alza sobre la lámina del mar. Surfistas, lugareños y algunos turistas ocupan el arenal que destaca por su naturalidad y ausencia de elementos urbanos.



KM - 17

# Akorda

EU

Lagako hondartza utzi eta berehala ezkerrera jota, Aroizbarrenako baserrien ingurutik aldapa bati ekingo diogu. Igoera jarraitua eta atsegina dugu Akorda auzunera iritsi arte. Herri tankera duen benetako landa-gunea da Akorda: baserri-giroko egitura bereizgarriari eusten dio, plaza, eskola, eliza eta zeharkatzen duen bidearen bitartez

Hegoalderantz metro gutxi batzuetan abiatuta, berehala agertuko zaigu azken helmugara, Laidara, ailegatu arteko norabide-marka.

ES

Dejamos la playa de Laga, subiendo por un tramo de carretera, para inmediatamente desviarnos a la izquierda y comenzar una ascensión junto a los caseríos de Aroizbarrena. Ascensión continuada y agradable hasta llegar a la barriada de Akorda: un auténtico núcleo rural con vocación de localidad. Mantiene su estructura característica de caseríos, configurando plaza, escuela, iglesia y el vial que lo atraviesa.

Tomamos hacia el sur unos pocos metros y enseguida una señal nos indica el camino que no abandonaremos hasta llegar ya al destino final: Laida.



GR 123®
BIZKAIKO BIRA OINEZ SENDERISMO HIKING
LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA



EU

**KM - 18**

# Atxarreko San Pedro talaia

Baina lehenago, etapa honetako beste bi toki esanguratsu ezagutu behar ditugu: Dantzaleku deituriko “bidegurutze magikoa” eta Atxarreko San Pedro. Dantzalekutik abiatzen da San Pedro ermitarako bidea. GR 123 osoko tokiren batek azpimarratzea merezi badu, tontor hau da zalantzarik gabe. Atxarreko talaia horretatik Urdaibaiko estuarioaren bistarik osatuena eta liluragarriena zuenganatuko duzue.  Ordu erdi baino ez da desbideratzen ibilbide nagusitik. Zoazte ermita hau artadiaren gailurrean bisitatzera. Ez zarete damutuko.



**KM - 18**

ES

# La atalaya de San pedro de Atxarre

Antes hemos de pasar por otros dos lugares significativos de esta etapa: Dantzaleku, un “mágico cruce de caminos”, y la ermita de San Pedro de Atxarre. Si algún lugar de toda la GR 123 de la vuelta a Bizkaia no se debe perder el senderista, es esta cima sencilla de alcanzar. Desviándoos apenas media hora a partir de Dantzaleku, podréis gozar desde esta magnífica atalaya la mejor panorámica de todo el estuario de Urdaibai. Lo recordaréis siempre.

**KM - 21**

11. Etapa ISPASTER–LAIDA

# Urdaibai










EU

Urdaibai izeneko parajea eremu natural guztiz ederra eta anitza da. Horregatik, UNESCOk Biosfera Erreserba izendapena eman zion 1984an. Bere bihotza Oka ibaia da: Oiz mendian jaio eta, Gernika zeharkatu eta gero, itsasadar bihurtzen da, bizitzaz betetako padura ikusgarriak sortuz. Atxarreko San Pedrotik ibilbidera bueltatu ondoren, San Martin ermitaren aurretik Kanala auzorantz jaisten den gurdibideari segituko diogu.

Iparraldera begira dagoen leku zoragarria da, eta ibai eta itsas paisaia aldakorra du, non marea-fluxuek etengabe eraldatzen duten. Kanalatik, errepidearen albotik joan gaitezke Laidako hareatza handira, oinezkoentzat egokitutako bazterbidetik. Bertan, mota guztietako zerbitzuak eta garraio publikoa aurkituko dituzue, baita kanping bikaina ere.

ES

Urdaibai es un espacio natural extraordinariamente bello y variado, razón por la que fue declarado Reserva de la Biosfera por la UNESCO en 1984. Su corazón es el río Oka, que nace en el monte Oiz y, tras cruzar Gernika, se transforma en ría creando unas espectaculares marismas llenas de vida. Una vez retornados a la ruta desde San Pedro de Atxarre, continuamos por el camino carretil que, pasando por delante de la ermita de San Martin, desciende hacia el barrio de Kanala.

Un lugar maravilloso que mira al norte y su cambiante paisaje fluvial y marino en el que los flujos mareales lo transforman constantemente. Desde Kanala podemos ir junto a la carretera por su arcén adaptado para peatones hasta el gran arenal de Laida en el que encontraréis servicios de todo tipo y también transporte público; incluso un estupendo camping.



GR 123®

**BIZKAIKO BIRA** OINEZ SENDERISMO HIKING

LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA

**Bultzatzailea:** Bizkaiko Foru Aldundia

**Promotor:** Diputación Foral de Bizkaia

**Tfn:** 94 4067700

BMF

Bizkaiko Mendizale Federazioa

ingenieriaSendo s.l.

Bizkaia foru aldundia diputación foral